



  
**SAGARDOA**rou-  
te  
gure jatorria



# Sagar raren txokoa



# Sagarraren txokoa

## Zer zen lehenago, sagarra edo baserria?

Sagarra da euskal lurretako fruitua, gure baserrien etekin ekonomikoa eta gure edari nagusiaren oinarria. Hasi gure lurraldeko barnealdeko mendien magal malkartsuetatik eta Donostiako Kristina Enea parkera bitartean sagarra izan da erregina.

Hori dela eta, etxeko txikienekin landu nahi dugu fruitu honen esanahia, paisaiarekin duen lotura, gure kultura eta hitzekin duen zerikusia eta egun duen funtzioa. Natura bizia da, eta naturaren bizitasun horrek eman dio freskura gai honi ere. Sagarra urte osoan zehar bizirik dagoen fruta arbola delako. Eta baserria, euskaldunon oinarri sendoa ere izan badelako.

Sagarraren Txokoaren lehen harriak Oihana Unanue Albizuri biologoak jarriak dira, bere jakintza eta pasioa eduki didaktiko bihurtuz. Orain, Oihanak egindako lanari Sagardoa Route - Gipuzkoako Sagardogileen Elkartek, Euskal Sagardoa - Jatorri Deiturak eta Fruitel - Gipuzkoako Frutagileen Elkartek bultzada eman nahi izan diote, sagarraren inguruko jakintza berriro ere hizketa-gai bihurtzea ezinbesteko bultzada delako sagargile eta sagardogileen lanaren ezagutza lantzeko orduan.

Eduki didaktikoaren barruan sagarra, sagastia, bioaniztasuna eta natura lantzeaz gain, tokian tokiko ezaugarriak landuko dira. Lurralde bakoitzak dituen ezaugarriak kontutan edukiko dira, bertako kultura, ohiturak eta gertakariak landuz. Metodologiari dagokionez, azalpenak, ekintza praktikoak eta joko didaktikoak tartekatuko dira, partehartzaileak, kide aktibo bihurtuz.

Sagarraren Txokoak hainbat ardatz izango ditu, urtaroaren eta adinaren arabera. Garaian garaiko ekintzak planteatzen dira lurralde bakoitzeko berezitasunak kontuan izanda. Funtsean, hauek izango dira oinarri nagusiak:

- **LANDAKETA, TXERTAKETA ETA KIMAKETA GARAIA:** Urtarrila - martxoa artean.
- **LORALDIA:** Apirila - maiatza artean.
- **UZTA GARAIA:** Iraila - azaroa artean

Urtarrila-Otsaila-Martxoa



Iraila-Urria-Azaroa



Apirila-Maiatza





# Landaketa, txertaketa eta kimaketa garaia

Urtarrila - Martxoa artean



## Landuko diren edukiak:

- Sagarrondoen neguko loaldiaren garrantzia.
- Landaketa egiteko baldintzak eta pausoak.
- Sagastiko hondakinen bidezko konpostaren prozesua.
- Landa eremuko sagarraren biodibertsitatea.
- Antzinako sagar barietateak. Ezagutza eta berreskuratzea.
- Sagarrondoein lan egiten duten ekoizleak ezagutzea.
- Txertaketaren teknika. Helburua. Pausoak.
- Kimaketa teknika.

## Ekintzak:

- Sagar barietateen bila: inguruko sagarrondoak dituzten kideekin harremana eta sagar mentuen bilaketa.
- Barietateen aukeraketa bioaniztasunaren irizpideari lehentasuna emanez.
- Fruitu arbolen landaketa.
- Lurraren ongarriketa konpost bidez.
- Fruitu arbolen txertaketa: aukeratutako eta bildutako barietateen mentuarekin txertaketa egingo da.
- Sagarrondo helduagoei kimaketa egitea.

## Ekintzen deskribapena:

Sagarrondo helduen kasuan, formazio kimaketa egingo da, tresna egokien bidez. Sagarrondo gazteak berriz, landatuko dira, non lurra aitzur bidez landu, landare gaztea esku artean izan eta landatzeko aukera izango dute partehartzaileek. Inguruko sagar barietateen bilaketa bat eginez, irizpide batzuk jarraituz, barietateen aukeraketa eta txertaketa egingo da. Teknika hau, bertatik bertara ezagutzeko aukera izango da.







## Loraldia

Apirila - Maiatza artean



### Landuko diren edukiak:

- Sagarrondoen loraldia. Baldintzak eta ezaugarriak.
- Polinizazio prozesua.
- Bizidunongan duen garrantzia.
- Intsektuen garrantzia. Bereziki, erlearen eginkizuna eta gaur egungo egoera.
- Hegazti eta saguzarren garrantzia.
- Sagastiko animali eta landareen bioaniztasuna.

### Ekintzak:

- Sagarrondoen artean ibilbidea.
- Eskuz egindako polinizazio saio praktikoa.
- Intsektuen behaketa.
- Intsektu hotelaren eraikuntza.
- Txori habiak kokatzea eta jarraipena.

### Ekintzen deskribapena:

Udaberri garai honetan, sagastian zehar, ibilbide bat eginez, sagarrondoen loraldia ezagutzeko aukera izango da. Garai honetan, intsektuen garrantziaz ohartuko gara. Polinizazio saio praktiko bat egingo du, partehartzaile bakoitzak.





# Uzta garaia

## Iraila - Azaroa artean



### Landuko diren edukiak:

- Gure lurrean sagarraren historia.
- Sagarrondoen biologia: elikadura, ugalketa, erlazioa.
- Sagar motak. Ezaugarriak.
- Sagar bilketa. Bilketa egiteko baldintza egokien garrantzia.
- Sagarraren eraldaketa prozesua: sagarraren garbiketa, txikitzea, sagar patsaren estutzea, sagar zukuaren sorrera.
- Sagarraren eraldaketan lortutako produktuak: Sagar zukua eta sagardoa.
  - **Sagar zukua:**
    - Pasteurizazioa.
    - Botilaratzea. Pasteurizazioaren garrantzia sagar zukuaren kontserbazioan.
  - **Sagardoa:**
    - Sagar zukuaren kupel-aratzea.
    - Hartzidura prozesua. Bertako bizidunak. Kupelaren ixtea. Hotz sistemaren erabilera, sagardoen kontserbazioan.
    - Sagar patsaren konpostatze prozesua. Konpostatze prozesuko bizidunak. Konpostaren garrantzia lurreko materia organikoaren zikloa ixteko.

### Ekintzak:

- Sagarrondoen artean ibilbidea
- Sagar bilketa
- Sagarraren eraldaketa prozesua ezagutzea eta parte hartzea: sagarraren garbiketa, txikitzea, sagar patsaren estutzea, sagar zukuaren sorrera.
- Sagar moten, zukuaren eta sagardoaren dastaketa
- Sagarra ardatz dela, joko didaktikoak

### Ekintzen deskribapena:

Udazken garai honetan, sagarrondoen artean ibilbide bat eginez, sagarrondoak sagarrez jantzita daudela ohartuko gara. Hori aprobetxatuz, dastaketa bidez, barietate ezberdineko sagar motak ezagutuko dira. Sagar bilketa egingo da eta tolare txiki baten bidez, bildutako sagarrak sagar zukuari eraldatu dira. Momentuan egindako sagar zukua dastatuko da. Horrez gain, zuku horretatik abiatuta, sagardoa egiteko prozesua ezagutuko da.





**Gipuzkoako zenbait sagasti proposatzen ditugu lehenago aipatutako ekintzak burutzeko:**

**01 ADUNA:**

Goiburu auzoa, 8. Aduna (20150).

**02 ALTZO:**

Altzo Azpi Barreiatua 16, 14. Altzo (20268).

**03 ASTIGARRAGA:**

Petritegi Sagardotegia, Petritegi Bidea, 8. Astigarraga (20115).

**04 AZPEITIA:**

Txaribar 1. Azpeitia (20730).

**05 DONOSTIA:**

Unanue Zahar Hotela, Errotazar Bidea 142. Donostia (20018).

**06 ERREZIL:**

Errezilgo ibilbidea. Errezil (20727).

**07 GAINZA:**

Dendaletxe Baserria, 17. Gainza (20248).

**08 HERNANI:**

Iparragirre Sagardotegia, Osiñaga auzoa, 10. Hernani (20120).

**09 IRUN:**

Meaka Auzoa Etxezabal, 87. Irun (20305).

**10 ITZIAR-DEBA:**

Arriola -Txiki Baserria. Itziar - Deba (20829).

**11 OLABERRIA:**

Errekalde Auzoa 25. Olaberria (20212).

**12 ORDIZIA:**

Oianguren parkea, Oiangurenaldea. Ordizia (20240).

**13 TOLOSA:**


Ezeizabarrena Baserria, Auzotxikia 29. Tolosa (20400).

**14 URNIETA:**

Azkonebieta Baserria, Ergoien Auzoa, 22. Urnieta (20230).

**15 USURBIL:**

Goikoetxe Baserria. Usurbil (20170).



Ekintza hauek, **OIHANA UNANUE** ingurumen hezitzailearen bidez egingo dira.

- NORI ZUZENDUA: Edozein adineko ikasleak.
- NOIZ: Urte guztian zehar. Astelehenetik ostiralera.
- IRAUPENA: 2 ordu
- HIZKUNTZA: Euskara.
- NON: Gipuzkoako zenbait sagastietan (mapa ikusi).
- BARNE: Material didaktikoa, sagar eta sagar muztio dastatzeak.
- PREZIOA: 6€/umeko.

\* GARRAIO ZERBITZUA: Autobus zerbitzua nahi izanez gero egin aurrekontuaren kontsulta.



# Sagarraren txokoa

  
**SAGARDOA** rou-te  
gure jatorria



  
**Fruitel**

Sagardoa Route

(Gipuzkoako Sagardogileen Elkartea)

943 336 811

[info@sagardoa.eus](mailto:info@sagardoa.eus)

Nabarra Oñatz 7 bajo. 20115 Astigarraga

